



ALEA

arabako aldizkaria

SORGINENA

**ETXE FEMINISTAK
IREKI DITU ATEAK**




Sorginenea
Tu casa feminista

ONENETAN ONENA ERDI-PREZIOAREN ERDI-PREZIOAN

Zatoz Euskaltelera



500

MEGA



20GB

DEI
MUGAGABEAK



AISIA

TB_a



FINKOA

DEI
MUGAGABEAK

19'9€
/hil
6 hilabetez



Kontratatu hemen:
EUSKALTEL.EUS | DENDAK | 1717



euskaltel

2019/9/30 baino lehen Zuzitza eta Internet kontratatzen dituzten bezero berrientzat da sustapena, eta 12 hilabeterako iraupen-konpromisoa du. Finkoa, 100 megako Internet (500 megako doako probaldi batekin 12 hilabeterako), mugikorra 10 GB + Mugagabeak (20 GB-ko doako probaldi batekin 12 hilabeterako) eta Aisia TBa, hilean 19,9 € ordainduta, sei hilabetez. Gero, paketearen prezioa hilean 65 € izango da. Prezioak BEZa bane. Informazio gehiago: euskaltel.eus.

Babesle teknologikoa:





ALEA 207

2019-09-20 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:
ERLANTZ ANDA.

Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** Larunbatean irekiko dute Sorginenea etxe feminista.
- 8 **Protagonista.** Aitziber Agirre, Elhuyar aldizkariaren zuzendaria.
- 12 **Iritzia.** Oier Llinas, 'LPR bueltan'.
- 13 **Iritzia.** Josune Velez de Mendizabal, 'Pareidolia'.
- 14 **Sarean.** #47akHerrian.
- 15 **Iruditán.** Gorbeiaiko parke naturalak zilarrezko ezteiak bete ditu.
- 16 **Gizartea.** Benetako Green gizarte mugimendua sortu dute, Gasteizen.
- 17 **Gizartea.** Banda zabala helduko da ia Araba osora urtea amaitu aurretik.
- 18 **Ekonomia** Eguzkiari esker ura merketu dute, Urbisun.
- 20 **Esanak eta laburrak.**
- 22 **Kultura.** Ostegunetan Zinemara programa, adinekoak babesteko.
- 24 **Kultura.** Hizkuntza gutxituak ezagutzeko zikloa, hastear.
- 26 **Gure bazterrak.** 'Mahastien artean' ibilbidea.
- 28 **Jolasa eta irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

Bultzatzaileak



berria goiena“

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martinez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugarte

Juanma Gallego

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU Inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7.bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.

Informazio gehiago: www.alea.eus/harpidetzak

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Oier Llinas eta Josune Velez de Mendizabal.

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Sorginenea, feminismoan eragiteko akuilua

Emakumeek zuzendutako emakumeentzako proiektu feminista jarri dute abian Gasteizko Alde Zaharrean: Sorginenea. Lurraldeko emakume guztiak gonbidatu dituzte larunbatean izango den aurkezpen jaialdian elkartu eta berdintasunaren alde lan egingo duen proiektuarekin bat egiteko.

Testua: **Anakoz Amenabar**. Argazkiak: **Erlantz Anda**.



Hormak zuri daude oraindik. Etorriko dena ikusteke, emakume bakoitzak berea margotu zain. Larunbatean, hilaren 21ean, irekiko ditu ateak Sorginenea emakumeen etxeak, eta orduan hasiko dira Gasteizko Etxanobe Etxean kokatutako egitasmo feministari kolorea ematen. "Emakume horrek eta honek eta hark... parte hartu nahi duten guztiek eraikitzen dutena izango da Sorginenea, inplikatzeko garenok eraikitakoa", nabarmendu du etxe feministako kide Paca Roblesek. Hogei urte baino gehiagoko aldarrikapena errealitate bilakatu da, Elena Cercadillo kideak gogoratu moduan, eta horri forma ematen hasteko emakume denen bultzada beharrezkoa izango da aurrerantzean: "Emakume lesbiana, trans, jatorri desberdineko... Emakumeen jabetzerako gunea izatea nahi dugu, denen etxea izango dena".

Partaidetzaren bitartez, gizartea eraldatzeko beste "pizgarri" bat izan nahi du Sorginenea, etxeko arduradunek aipatu dutenez. Herri hezkuntza feminista ikusarazi eta ezagutarazi nahi dute, eta eztabaidak eta ikerlana sustatu nahi dituzte. Lehenengo hilabeteetan lehentasuna emango diete gunea hiriko emakumeen artean ikusarazi, ezagutarazi eta beren parte-hartzea sustatzera bideratutako jarduerari. "Bisitak antolatuko ditugu, hirian dauden

Sorginenea emakumeen etxeko kideetako batzuk, etxea aurkezteko egindako agerraldian. E.ANDA



Sorginenea egitasmoa aurkezteko
asteartean egindako agerraldia. E. ANDA



elkarte eta taldeei zabalik, eta guk geuk ere bisitatu nahi ditugu ekarpen desberdinak jaso eta antolatzeko", nabarmendu du Cercadillok. Ideia eta proposamen guztiek izango dute lekua bertan, baina ildo nagusi batek gidatuta: feminismoak. "Proiektu feminista da, emakumeek zuzendua, eta emakumeentzako. Alegia, helburua ez da emakumeen gizarte etxe bat izatea, horretarako badaude gune aproposak, mugimendu feminista eragitea baizik". Gasteizen talde ugari daude biltzeko gunerik gabe, eta han izango dute horretarako aukera. "Lan ugari daude egiteko; demagun euskara batzorde bat abian jartzeko, indarkeriaren kontrako lantalde bat, talde internazionalista bat...".

Gasteizko aniztasunaren isla izan nahi du etxeak, eta hala izan da azken hilabeteetako lan prozesuan ere. Askotariko emakumeek parte hartu dute, eta zailtasunak ez dira falta izan; "feminismoa" bera talkarako gai izan da, besteak beste. "Prozesu honetan egon dira emakumeak feminismoa zer zen ere ez zekitenak, eta orain badakite, edo helburuekin ados egon arren euren burua feministatzat ez dutenak; feminista sutsuak garenok horretatik ere ikasi behar dugu, eztabaidatzen eta batzutan isiltzen, frenoa jartzen eta akordioetara heltzen. Zaila da", gogoratu du Cercadillok.

Ermua, Basauri eta Donostiako emakumeen etxeak izan dituzte eredu eta laguntzaile sortu diren kezka eta arazoei aurre egiteko. Besteak beste, etxearen kudeaketa ereduak izan dute eztabaidagai behin baino gehiagotan, eta Udalarekin partekatutako ereduaren alde jo dute azkenik. "Kogestioaren bidez beste herrietan ondo funtzionatzen ari direla ikusi dugu, eta, bestalde, uste dugu politika publikoak herritarrok egin behar ditugula diru publikoarekin, eta

horretan emakumeon eskubideon alde borrokatu behar dugula". Batetik, Gasteizko Udalaarekin hitzarmena adostu dute, eta Jabetze Feministarako Eskolarekin partekatuko dute egoitza; eta, bestetik, parte hartu nahi duten emakume guztiak ordezkatzen dituen Sorginenea elkarte sortu dute; azken hori izango da kudeaketa-organo nagusia. Horietan definitutako lan egitasmoak aurrera eramateko bi langileren laguntza izango dute.

"Leku segurua eta konfiantzakoa" izango da Sorginenea, emakumeena. "Denon parte-hartzea behar da, ez emakumezkoena bakarrik, baina horretarako uste dugu oraindik ez direla baldintzak ematen. Guk propio antolatzekeko arrazoiak daude, guk gure bidea egiteko premia dugu", azaldu du Cercadillok. "Erreferentzia izango da Gasteizko emakume guztientzat eta feminismoaren eta berdintasunaren alde diharduten kolektibo guztientzako; etxe feminista izango da, hirian barrena feminismoa zabalduko duena, eta udalerrian berdintasunaren aldeko politiko publikoetan eragingo duena".

Larunbatean, jaialdia

Zailtasunak izan dira bidean, eta aurrerantzean ere izango direla jakin badakite, baina erronkari eusteko indartsu daude emakumeak. Bateko eta besteko eztabaidak tarteko, eta interes desberdinek bultzatuta, badira Sorginenea proiektuarekin bat egin nahi izan ez duten talde feministak, baina horiei ere batzeko deia egin diete. Eta aliantzak bilatzeko lehen pausoa larunbaterako prestatutako jaia izan daiteke; jaian bertan aurkeztuko dute bazkide kanpaina. 11:00etatik 23:00etara, musika, antzerkia eta sorpresak ez dira faltako, Adriana Rodriguez kideak aurreratu bezala: "Den-denak irailaren 21ean gure hirian eta euskal lurralde osoan idatzita geratuko den historiaren protagonista izatea nahi dugu".

Sormena, hausnarketa eta, batez ere, gauzak egiteko beste modu batzuk bilatu nahi dituzte Sorginenean. Horma zuriei kolorea eman, liburutegia bete eta bilera geletako joan-etorriak hasi dira Alde Zaharreko etxe feministan. ■■■

"MUGIMENDU FEMINISTA ERAGITEKO ETXEA IZAN NAHI DU SORGINENEA"

ELENA CERCADILLO, SORGINENEA

- Astialdiko begiralea • Astialdiko zuzendaria
- Jolas guneen eraldaketa: heziketa berdea eta ikuspegi feminista
- Indarkeriaren arrakalak • Hezkidetzan aditua
- Aniztasun funtzionala eta sexualitatea: hastapenak eta gehiago!



**Urtxintxa
Eskola**
urtxintxaeskola.eus

2019-2020 ikastaroak

Matrikula
zaitez!

Irailaren 27ra arte!

+34 944 320445

"Demokrazia kontua da gizartean kultura zientifikoa hedatzea"

AITZIBER AGIRRE ELHUYAR ALDIZKARIAREN ZUZENDARIA

Zientzia egiten ari dira mundu osoko ikertzaileak, baina beste hainbat lagun ere badira zientziaren aurrerapenak eta erronkak gizarteari helarazten dizkietenak. Hori da, hain zuzen, Aitziber Agirrek aukeratutako bidea. Dibulgazioaz gain, zientziarekiko kritika ere sustatu behar dela uste du. Testua eta argazkiak: **Juanma Gallego**.

Biokimikaria izan behar zuen, baina bizitzak zientzia-dibulgazioaren aukera eskaini zion, eta, modu horretan, zientziaren munduan izaten diren aurrerapen guztien inguruan nahi adina galdera egiteko pribilegioa eskuratu zuen Aitziber Agirre Ruiz de Arkautek (Gasteiz, 1974). Hainbat urtez Teknopolis saioa aurkezten ibilita, kameraren aurrean "sufritzen" duela aitortu du. Galderak erantzutea baino galderak egitea gustatzen zaiola dio; baina, oraingoan, berriro kameraren aurrean egotea eta galderak erantzutea egokitu zaio. **Biokimikaria zara ikasketaz, baina orain kazetari gisa zaitut aurrean. Zerk eraman zintuen horretara?** Egia esanda, nik ez dut inoiz izan oso markatutako bokazio bat umetatik, baina institutuan asko gozatzen nuen biziaren oinarriak zeintzuk ziren argitzen zigutenean: geneak, zelulak... hor piztu egiten nintzen. Gainera, oso biologia irakasle ona izan genuen. Karrerako hirugarren mailan laborategi batean sartu nintzen, eta bertako lana nolakoa zen ikasteko eta ikusteko gogoia nuen. Hortaz, niretzat zerbait oso naturala izan zen ikerketan geratzea. Doktoretza

tesia egiten hasi nintzenerako baneramatzan hiru urte lan hori ezagutzen eta parte hartzen.

Zeri buruzkoa izan zen zure tesia?

Birusek zelulak nola infektatzen dituzten ikertu nuen; zehazki, GIB, gripea eta polioaren birusen proteinek nola lortzen duten birusaren eta zelularen mintzak fusionatzea eta birusa barrura sartzea. Hiru birus horien proteinek mintzarekin nola erreakzionatzen duten, hain zuzen.

Eta zergatik ez zenuen horretan jarraitu?

Batetik, askotariko gauzak egitea gustatzen zaidalako. Bestetik, idaztea asko gustatzen zaidalako ere, eta zientziaren komunikazioan aukera bat ikusi nuen. Baina hirugarren arrazoi garrantzitsu bat ere egon zen. Laborategian tokia neukala esan zidaten, baina lau urtez Ameriketako Estatu Batuetan ikertzen eman behar nituen. Orduan 28 urte nituen, eta senak eskatzen zidan amatasuna planteatzea. Ikerketan jarraituz gero, amatasuna alde batera utzi behar nuen, edo, behintzat, asko atzeratu.

Ez dago modurik ikerketa eta amatasuna bateratzeko?

Posiblea bada, baina oso zaila da. Ikerketaren karrera zorrotza da; asko eskatzen dizu. Ama eta ikertzaile diren lagun asko ditut, eta batzuetan



itota ikusten ditut, eta haien kide gizonezkoek karrera eramaten duten abiadura ezin dute jarraitu. Dena dela, imajinatzen dut hau beste lanbide askotan gertatuko dela.

Nola hasi zinen Elhuyarren?

Beka bat atera zuten, eta idaztea asko gustatzen zaidanez, nire burua aurkeztu nuen. Ikertzen ari nintzela, burua oso kontu konkretuan neukan sartuta, eta irakurtzen nuen guztia horri buruzkoa zen. Baina dibulgazioan, bat batean, zientzian egiten diren horrenbeste gauza interesgarriari buruz ikasteko aukera izan nuen, gauza pila bat dakien jendearekin hitz egiteko aukerarekin. Plazer bat izan zen hori. Gainera, zientzian emaitza bat lortzeko hila beteak eta batzuetan urteak behar dituzu, baina kazetaritzan askotan egun batean idazten duzuna hurrengo egunean argitaratzen duzu. Alde handia dago.

Teknopolis telebista saioa aurkezten urte batzuk eman dituzu. Zein formatutan zaude erosoen?

Aitortu behar dut telebistarena esperientzia polita izan zela; baina niretzat oso gogorra izan zen. Kameraren aurrean egonda sufritu egiten nuen: nire izaeratik edo, benetako tortura zen niretzat. Ni erosoan idazten nabil, diferentziaz. Gero, seme-alabak izan nituenean, bederatzi urteko eszedentzia hartu nuen, era gero lanera itzuli nintzen.

Bueltatu zinenean, Elhuyar aldizkariaren zuzendari izatera pasatu zinen. Nolakoa izan zen buelta?

Itzulera gogorra izan zen. Pentsa bederatzi urte lanetik kanpo eman nituela. Gizarteak ez du errazten ama edo aita izateagatik ibilbide profesionalean halako etenaldi luze bat egitea, baina niretzat zentzu handia dauka, eta ez naiz inoiz damutu hori egin izanaz. Eskerrak lankide oso onak ditudan; asko lagundu ninduten bueltan, beraiek gabe ezin izango nukeen egin. Bestetik, aldizkariaren ardura hartu nuen.

Data horien bueltan aldizkaria hila betekaria izatetik hiruhilabetekaria izatera pasa zen...

Hala da, eta krisialdi gogorra izan zen aldizkarian. Arrazoa ekonomikoa izan zen, erabat. Zientziaz eta euskaraz aldizkari batek publiko txikia du oraindik, eta zaila da hori ekonomikoki sustengagarria egitea. Diru-laguntzak ez dira nahikoak horrelako proiektu bat sustengatzeko eta Elhuyarren zulo ekonomiko handia sortzen zuen. Telebista, adibidez, bideragarria da, batez ere proiektua sustengatzen duten babesleei esker. Baina aldizkariari dagokionez, hiruhilabetekaria izanda, zulo ekonomikoa murriztu da orain. Baina



Zientziaren "puntu ahulak" ere jorratu behar direla dio Agirrek.

"ANALISIARI TARTE HANDIAGO EGIN DIOGU ALDIZKARIAN, IKERTZAILEEK BERAIEK IDATZITA"

"DIBERTSITATE HANDIAGO BALEGO, BESTELAKO HARRERA JASOKO LUKE ZIENTZIAK GIZARTEAN"

ez da erraza maiztasun horrekin eguneroko albisteei erantzutea.

Aldizkariaren tamaina ere aldatu duzue...

Bai, analisiari tarte gehiago eman diogu; hau aspalditik buruan geneukan. Adituek beraiek egindako analisiak dira. Askotan, zientzia abiadura bizian doa, eta beste batzuetan, motelago. Hortaz, gaiei patxadaz heltzeko aukera izan nahi dugu. Bestetik, ikertzaileek idatzitako lanei ematen zaien tokia indartu dugu. Guretzako luxu bat da beraien ekarpenak jasotzea. Inoiz baino lan gehiago jasotzen ditugu, eta hori bihotzez eskertzekoa da.

Aurtengo Rikardo Arregi sarietan ere egindako lana aitortu dizuete. Halako errekonozimendu asko daude?

Ez, gutxi daude, badakizu! [barrez]. Guretzat halako *subidoi* bat izan zen. Ez genuen espero gurea bezalako aldizkari xume bat azken 30 urteetako hamar mugarrien artean egotea. Nor gogoratzen da ba zientziaz halako hedabide handien artean? Izugarritzko poza hartu genuen.

Kultura zientifikoari dagokionez, nolakoa da gaur egungo egoera Euskal Herrian?

Nik uste dut premiazkoa dela honi begiratzea. Ikusita zer nolako garrantzia hartzen ari diren zientzia eta teknologia gure gizartearen garapenean, ezinbestekoa da herritarrok horren kontzientzia hartzea eta zientzia eta teknologiarekiko kritikoak izatea. Are gehiago, baita zientzia-sistemarekiko kritikoak ere. Gai izan behar dugu zientzia ulertu eta irizpide argiak izaten, ez badugu nahi gutxi batzuen artean erabakitzea zertara bideratuko den, adibidez, adimen artifizialaren, genetikaren edo nanoteknologiaren botere hori guztia. Demokrazia kontu bat da, hortaz, gizartearen kultura zientifikoa hedatzea.

Eta hori ere ez al da ere gizartearen ardura?

Askotan entzuten dugu gizarteak kultura zientifiko handiagoa izan beharko lukeela. Bada, egia esan, nahiko kritikoa naiz herritarren kultura zientifikoa zalantzan jartzen denean, herritarrena balitz bezala horren ardura. Agintariak erabaki beharko dute zer baliabide jartzen dituzten zientzia zabaltzeko. Eta zientzialariek eta kazetariak aztertu beharko dugu nola aurkezten dugun zientzia gizartearen aurrean. Umiltasunez gerturatzen ote dugun, herritarren iritzia entzuten duen zer bait bezala, edo gure gainetik dagoen zerbaiten gisa.

Beraz, autokritika egin behar dela uste al duzu?

Nik bereziki gustura hartzen ditut zientzialariek zientziari egiten dizkioten kritikak. Onartzen dutenean zientzia bera ere klasista eta matxista dela. Zeren zientziaren puntu ahulak eta zaurgarritasuna agerian uzten ditugunean, zientzia pixka bat gizatiarragoa eta gertukoago sentitzen dugu denok. Hortik bai gerturatu gaitezke herritarrok zientziara, mehatxurik sentitu gabe. Handia eta zurruna azaltzen denean, ordea, urrutikoa eta arrotza sentitzen dugu. Eta horrek gure aurreiritziak elikatzen ditu. Oso bestelako harrera jasoko luke zientziak gizartearen, adibidez, zientzialarien artean dibertsitate handiagoa balego. Nolabait, denok gure burua ordezkatu

ikusiko bagenu: klase sozial eta etnia guztietako jendea balego, emakumezkoek ahotza balute, gazteei ere haien ekarpena aitortuko balitzaie, zientzialariek eta teknologoekin elkarlanean pazienteak, artistak, psikologoak, filosofoak eta beste ere arituko balira... Hitzetatik harago, errealitate bihurtuko balitz hori. Bidea egingo balu honetan, ziur naiz herritarrek berea sentituko luketela zientzia, eta askoz ere gehiago gozatuko luketela zientziak eskaintzen duen ezagutza horrekin guztiarekin. Plazerrarekin erlazonatuko lukete.

Zientzia-sistema berari dagokionez, nola ikusten duzu Euskal Herriko egoera?

Zientzia eta teknologia garapen ekonomikoaren motorra diren heinean, ez da nahikoa inbertitzen. EAEn, esaterako, barne-produktu gordinaren % 2 da; Europako herrialde gehienek atzetik. Eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Sistemak EAEn markatuta dituen lehentasun estrategikoei begiratzen badiegu, hiru dira: fabrikazio aurreratua (automobilgintza, aeronautika, makina-erreminta...), energia eta biozientziak/osasuna. Nik faltan sumatzen dut lehentasun estrategikoen artean ekologia eta garapen sostengarria egotea. Krisialdi klimatikoa eskutan lehertzen ari zaigun honetan, eta gizakiaren historiako bioaniztasun-galera handienaren atarian gaudela, nik uste lehentasunezkoa izan beharko lukeela Euskal Herrian alor honek.

Zer hobetuko zenuke, aukera izanez gero?

Adibidez, atzerriara formatzera joaten diren ikertzaile gazteen eta haien talentuaren itzulerarena konpondu behar da. Ez dago beste lanbiderik halako formakuntza luzea, espezializatua eta sakrifikatua eskatzen duenik, eta behin bukatutakoan ere, lanerako hain eskaintza txikia duenik. Ondorioz, oraindik ere ikertzaile asko atzerrian geratu behar izaten dira. Eta azkenean itzultzea lortzen dutenak ere, urteroko proiektuen mende bizi dira, inolako egonkortasun profesional eta ekonomikorik gabe. Nik uste jada lehentasunez heldu beharreko gaia dela hau. Ezin dugu espero zientzia-sistema sendo bat izango dugula oinarriak kolokan baldin baditugu. Euskal zientzia-sistemak abian jarri beharko luke aniztasun hori bermatzeko plan eraginkor bat. Nekez ase egingo dituzte zientziak eta teknologiak gizarte osoaren beharrak, ikerketa egiten duten taldeek eta teknologia zertara bideratzen den erabakitzen dutenek berek ez badute aniztasun hori beren baitan. ■■■

LPR bueltan



OIER LLINAS VILLASANTE

KAZETARIA

Gaur gauean La Polla Records taldearen bigarren etorreraren lekuko izango gara. Eta zer nolako berpiztea! Iragarri zuten lehenengo makro-kontzertu andanarako sarrerak ordu gutxi batzuetan agortu ziren. Hurrengo egunetan leku berberetan baina aurreko egunean egingo ziren kontzertu berriak aurkeztu zituzten. Gero, abesti berri bakarra duen disko berri bat kaleratu zuten eta taldearen inguruko liburu berriak publikatu dira. Izan daiteke marketina punk musikara heldu dela? Izan daiteke dirua dela hamasei urte ostean taldea berriz batzeko arrazoi nagusia?

Ez dakit eta berdin zait: La Polla Records da, eta nik sarrera erosita daukat jadanik. Evaristo, Sume, Abel, Txiki eta Tripi eszenatokira igotzen direnean garai baten soinu banda entzuteko aukera edukiko dugu. Ikerketa soziologiko bat egiteko momentu ona ere izango dela uste dut, edo, gutxienez, galdera batzuk erantzuteko momentu aproposa. Adibidez, zer nolako itxura dauka 60 urteko punk musikari batek? Harmailetan sarrera erosi zutenek eserita ikusiko al dute kontzertua? Zenbatek grabatuko dute kontzertua bere iPhone berriarekin?

La Polla Recordsi buruz pentsatzean irudi pilo bat etorri zaizkit burura: kuadrillakoekin partekatutako kaseteak, Gasteizko desagertutako Gallery aretoan egin zuten kontzertua, *Bocas* diskoaren kamiseta zuen laguna... argi dago taldearen kide berria Nostalgia ("n" maiuskulaz) deitzen dela. Hamasei urte jo barik egon ostean posibleena litzateke ikusle gehienak taldearen jarraitzaile zaharrak izatea. Ezagutzen ditudanen artean batzuk guraso errespetagarriak dira, eta, adinak ez duenez barkatzen, askok astelehenean lanean jai eskatu dute.

Talde zahar bateko taldekide zahar batzuk ikusle zaharkitu batzuen aurrean. Hori da gure ikerketa soziologiko xume honek bota dezakeen emaitza beldurgarria. Punk musikak ez dituela jadanik gazteen kontzientziak astintzen, eta ez dituela sistemari garrasi egitera bultzatzen. Zorte pixka batekin okertuta nabil. Zorte pixka batekin kontzertura goazen "zaharrok" gogoratuko dugu jende mordo bat tristeki bizi dela eta demokratikoki hilko dela. Eta zorte pixka batekin gure kontzientziak berriz piztuko dira. Azken finean, hori da punka, ezta? ■■■

**KUADRILLAKOEKIN
PARTEKATUTAKO
KASETEAK, GALLERY
ARETOAN EGIN ZUTEN
KONTZERTUA...**

Pareidolia



JOSUNE VELEZ DE MENDIZABAL

AKTOREA

Ze ilogikoa zaren". Institutuan mahai ondoan esertzen zen mutilak esan zidan. Bere burua niri begira, parez-pare, serio. Nire barrea eten zen jarraian. Errespetu modukoa nion, klasean zeuden ume moko guztietatik koxkorrena iruditu zitzaidan institutu berri arrotz horretan sartu nintzen lehen egunetik. "Ze ilogikoa zaren", min sentitu nuen, lotsatu ere egin nintzen. Matematika irakaslea arbelan ari zen "*txor txor ber bi txor txor txor neperianoaren hipotenusa... txor txor... erro karratua... eta Y baztertuz gero... txor txor*". Aspaldi utzi nion ulertzeari. Barrea sortu zidan egoerak. Ikaskidea, berriz, matematiketan trebea zen, 2 ETA 2, beti lau. Nik, ordea, batzuetan 5; eta beste batzuetan 3... Ilogikoa ote nintzen?

Urteek aurrera egin ahala, bi eta bi ez zirela beti lau entzun nuen. Zer eta ETAre (Y delakoaren) arabera emaitza aldakorra zelako. Txiste matematikoa. Hara! Aurrerago ere, umore absurdoa ezagutu nuen. Eskerrak! Munduaren zati batean nire burua kokatzeko aukera nuen! Hala, egun pareidoliari heldu diot, buruak ikusitako irudi bati beste zerbaiten antza aurkitzen dion fenomeno psikologikoa. Adibiderik? Hodeien formazioak iradokitzen dizkiguten txakur, sorgin, unikornio... irudiak. Denok ulertzen dugun adibidea. Logikoak seguruenik... edo.

Kalkulu matematikoa eginez, azken hilabeteetan gizartean egon diren pareidoliak agertu zaizkit, arbelan nerabezaroan ikusi bai baina burmuinak bestelako forma ematen dizkienak, irudi ilogikoak. Altsasuko auzia (logaritmo neperianoa), hauteskundeen errepikapena (ber bi? bider bi? erro karratua?) edota 11/13 makroepaiketa (ETAre –Yren– balioaren araberako emaitza). Zer iritzi izango luke egun nire garai hartako mahai ondoko mutilak? Logikarik aurkituko lioke? ■■■

**ILOGIKOA OTE
NINTZEN? URTEEK
AURRERA EGIN AHALA,
BI ETA BI EZ ZIRELA
BETI LAU ENTZUN NUEN**

SAREAN

@ANAMENABAR

#47akHerrian

A amaitu da amesgaiztoa, sei urteren ondoren. Erabaki kolektiboa adostuta, egotzitako delituak onartu dituzte 11/13 sumarioko auzipetuek, eta espetxea saihestu ahal izango dute 47tik 45 lagunek, urte eta erdi eta bi urtera arteko zigorra ezarrita; Arantza Zulueta eta Jon Enparantzak, ordea, bosna hilabete egin beharko dituzte kartzelan. "Ez gatoz hona justizia bila", esan zuen Ibon Meñika auzipetuak Auzitegi Nazionala "salbuespen epaitegia" dela nabarmenduz; "iragana atzean utzi eta etorkizuna elikatzeke asmoz gatoz". ■



NAGORE L. LUZURIAGA
@nago_luzuriaga

Gaur 30 urte nire osaba-izebak atxilotu, torturatu eta espetxeratu zituztela. 8 urte nituen kartzela ezagutu nuenean. Gaur nire alabak/ilobek kartzela ez dutelako ezagutuko pozik. 30 urte beranduago konpontzeke jarraitzen du aferak.



IBON MEÑIKA
@kaltzo

Iraganera kateatu nahi gaituen epaiketa bihur dezagun etorkizunerako ate.
#Herrian



LARRAITZ UGARTE
@larraitz_ugarte

Holako pertsona puskak herriratzea albiste pozgarria da ezinbestean. Justizia espero ezin daitekeenean efikazia da garrantzitsuen.



UNAI GLZ-TXINO
@ga_unai

Euskal preso politikoen alde horrenbeste lan eraginkor (ta ez sofako tweet arinak) egindako militante historikoen "duintasuna" zalantzan jartzen duten *twiteriraultzaileek* hitz potoloegiak arintasunez darabilten sentsazioaz nazkatua.



EIDER GOENAGA
@EiderGoenaga

Zorionak guztioi! Eta animo Arantza Zulueta eta Jon Enparantzari! Ulergaitza litzateke garaiotan Espainiako espetxeetan 47 preso politiko gehiago hainbeste urtez atxikitzea.
#47akHerrian



JUAN KARLOS IZAGIRRE
@Juankarlzagirre

Adostasun bideak baditu gazi-arrastoak, baina berri gozoa zalantzarik gabe etxean nahi ditugunentzako. Muxu bana eta animo Arantza eta Jonentzat!

IRUDITAN



Denboraren kapsula gorde du Gorbeiak

Gorbeiaiko parke naturalaren 25. urteurrena dela eta, askotariko jarduerak egin zituzten larunbatean Sarriako parketxean. Umeek ardi latxen artilea lantzen ikasteko edo txorientzako etxetxoak sortzeko tailerrak zituzten bitartean, beste batzuek 36ko gerra garaiko Txintularrako lubakiak bisitatzeko ibilbide etnografikoan parte hartu zuten. Denboraren kapsula bat ere lurperatu zuten hainbat objektu sinbolikorekin, azken 25 urteak gogoratzeko; tartean, egunkariak, parkeko hileko batez besteko tenperaturari buruzko datuak, artilea edo lumak sartu zituzten kutxan. 2044. urtera arte egongo da lur azpian gordeta. **Argazkia: AFA.** ■■■



**Bidali zure
argazkiak testu
labur batekin:
erredakzioa@alea.
eus**



Hamabi taldek osatu dute mugimendu sozial berria. BENETAKO GREEN

Hiri berdearen sena jomugan

Gasteizko hainbat taldek Benetako Green gizarte mugimendua sortu dute, "parte-hartze erreala" bultzatzeko eta "bizi-ingurunearen" alde egiteko. 'Green Capital' baten "sena berreskuratzea" dute helburu.

JUANMA GALLEGO GASTEIZ

Ekologistak Martxan, Gasteizko Bizikleteroak, Gaden, Munizipalistok, eta beste hainbat elkarte. Orotara, hamabi taldek bat egin dute Benetako Green izeneko egitasmoan, Gasteiz "benetako hiriburu berdea" izatea lortu aldera. Astelehenean egin dute aurkezpena, eta mugimenduaren zutabe izango diren irizpideak zehaztu dituzte.

Horietako bat herritarren partaidetza bera da, talde berrian bildutako eragileek uste dutelako Gasteizko udal gobernuak ez diela partaidetza-foroak errespetatzen, ezta aintzat hartzen ere.

Arlo honetan herritarrei "iruzur" egiten zaiela salatu dute. Foro horiek parte-hartzaile gisa "mozorrotu arren", azken erabakiak "hartuta" daudela diote.

Horren adibide jarri dute hiriko zuhaitzekin gertatzen ari dena: gaiari buruz Udalak herritarren iritzia jaso ez duela diote, eta aurretiaz ere informaziorik ez due-

KLIMA LARRIALDIARI BURUZ UDALAK EGIN DUEN ADIERAZPENA "BEHARTUTA" IZAN DA

la eman salatu dute, "araudiaren kontra" izanik ere. Zentzu horretan, gogoratu dute kaleak eta plazak berritzean, Udalak zuhaitzak botatzen eta kimatzen dabilela, eta hori, gainera, udaberrian eta udan egiten dutela, "bioaniztasunerako sasoi kritikoan". Eskoletako jolas-tokiak "kutsaduratik babestuko lituzkeen landare-pantaila gabe" geratzen dira, kolektiboaren arabera.

Udalak klima-larrialdi buruz egin berri duen adierazpena "behartuta" egin duela adierazi dute, eta adierazpen hori gauzatzeko neurri zehatzik hartu ez izana kritikatu dute.

Beste hainbat datu aipatu dituzte. Hiriko birziklatze tasa %27 dela diote, eta "gainerakoa Gardelegiko zabortegira doa". Kutsadurari dagokionez, hirian jarritako hiru neurgailuek "airearen kalitatearen galera" bat adierazten dute. Ariznabarran egin asmo duten aparkalekua aipatu dute ere, kutsadura "asko areagotuko" duela aurreratuz, eta adinekoen zentro baten alboan egongo delako kexu mintzo dira.

Zadorrari ere erreparatu diote, eta ibaira botatzen den ura "egoe-ra ekologiko egokian egotetik urrun" dagoela adierazi dute.

Oinezkoentzako espazioa

Espazio publikoari eta mugikortasunari buruzko kexak agertu dituzte, baita ere. Hala, hiriak oinezkoentzako duen espazioa %28 besterik ez da, eta bertan dauden ibilgailuen kopurua zuhaitzena baino handiagoa da. Patineteen eta halako ibilgailu berrien inguruko araudia eskatu dute, eta espaloian doazen bizikleten inguruan dagoen "kontrol eza eta permisibitatea" direla eta, oinezkoentzako guneak "gatazka-leku" bihurtu direla uste dute.

Banda zabala herrialde osorako

Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek iragarri dute urtea amaitu baino lehen Arabako 535 herritara eta industrialde gehienetara zabalduko dela belaunaldi berriko zerbitzua.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Urtea amaitu aurretik, Arabako etxebizitza ia guztietan banda zabaleko zerbitzua kontratatu ahalko da. Hori da, behintzat, Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak Maeztun egindako agerraldian iragarri dutena: "Arabako etxebizitzaren ia %100ek dute jada, edo laster izango dute belaunaldi berriko banda zabaleko zerbitzuak kontratatzeko aukera".

Banda Zabala Ultralasterraren Behatokiak eskaintako datuen

arabera, urtea amaitu aurretik Arabako 535 herritara zabalduko da belaunaldi berriko banda zabaleko zerbitzua, eta soilik 12 herritan ezingo dute zerbitzua kontratatu. Dena den, 2019-2020 planean herri horietara ere konexioa iristea aurreikusten dute administrazioek.

Arabako industrialdeen kasuan, berriz, %80k aukera izango du zerbitzua kontratatzeko abendua baino lehen. 2016-2018 urteen bitartean, Jaurlaritzak eta hiru

foru aldundiek ia hamar milioi euro inbertitu dituzte enpresen azpiegitura digitala hobetzeko. Horren bidez, Euskal Autonomi Erkidegoko 373 enpresa-poligotan sakabanatuta dauden 5.250 enpresei zerbitzu berria eskaini zaie.

65.000 biztanle

Halaber, beste hamar milioi euro gehiago inbertitu dira erkidegoko 715 herritan konexioa izateko: "65.000 biztanlek eta 29.000 etxek baino gehiagok dute orain azpiegitura teknologiko hau. Duela lau urte konektibitatearen %100aren helburua ezarri genuen eta datorren urterako konpromiso hori bideratuta izango dugu", azpimarratu dute.

Banda zabalaren hedapena kontsultatzeko webgune berri bat martxan jarri du Jaurlaritzak, eta horretan herriz herri agertzen dira epeak eta proiektuak: www.euskadibandazabala.eus



Banda zabalaren hedapena ia etxe guztietara iritsiko da urtea amaitu aurretik. PIXABAY



Arabako lurraz ureztatzea erabiliko den lehen parke fotovoltaikoa aurkeztu dute administrazioek. [EEE](#)

Eguzkiari esker merketu dute ura

Ura ponpatzeko eta laboreak hazteko Urbisuko Ureztatzaileen Elkarteko nekazariak metro kubiko bakoitzeko 30 zentimo euro ordaintzen zuten; eguzki energiari esker %80 murriztu dute kostua.

ESTITXU U. LZ.DE ARKAUTE URBISU

Arabako ur garestiena zuten Urbisuko nekazariak. Lurraz ureztatzeak zekartzen kostu handiaren ondorioz, nekazaritzara bideratutako espazioak murrizten ari ziren herrian, eta lanaren errentagarritasuna geroz eta txikiagoa zen. Egoeraren larritasuna ikusirik Ureztatzaileen Elkarteko kideak

soluzio baten bila hasi ziren, eta lau urteko lanaren ondoren martxan jarri dute alternatiba: uraren ponpaketa egiteko eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioa.

Pasa den ostiralean egin zuten lehen proba. "Ikaragarria izan zen ikustea nola igotzen zen ura", esan dute Pedro Txasko elkarteko lehendakariak eta Txema Martinez

de Antoñana idazkariak. Aurten, froga egingo dute, ea sistemak zenbat hektarea hornitzeko ematen duen, baina konbentzitutak daude aurreikusitako 250 hektarea ureztatze baliotzat hartuko dela azpiegitura berriak. "Aitzindariak gara Araban, onerako eta txarrerako; baina uste dugu formula aurrera aterako dela. Beste toki batzuetan funtzionatzen badu, zergatik ez hemen?".

Etxeak hornitzeko

Urbisuko Batzar Administrazioaren lau mila metro koadroko partzela batean kokatu dute parkea nekazariak, herritik gertu dagoen Santa Lucia eremuan. Eguzki-instalazioak 512 panel ditu eta 166,84 kWeko potentzia. 250 hektarea inguruko nekazaritza lurraz ureztatzeaz gainera, instalazioak herriko etxeen kontsumo-

150

Instalazioak

Ekitaldi honetan autokontsumoa bultzatzeko EEEren diru-laguntzak 1.900.000 direla adierazi dute arduradunek. Eguzki-energia fotovoltaikoaren aprobetxamendurako azpiegiturek, instalazio eolikoek eta minihidraulikoek jaso ahalko dute diru-laguntzak, eta horiei esker 150 instalazio inguru martxan jartzea espero da Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan; guztira, gutxi gorabehera 4 MW-ko potentzia instalatua izatea espero dute.

"AITZINDARIAK IZAN GARA ARABAN, ONERAKO ETA TXARRERAKO"

PEDRO TXASKO, UREZTATZAILE ELKARTEA

rako ere ponpatuko du ura. "Ureztatzeko bi bonba ditugu –azaldu du Txaskok–, eta biak aldi berean ibili ahalko dira eguzkiak ondo jotzen duenean".

Izan ere, bi zundaketatik gertu kokatu da instalazio fotovoltaikoa; 120 metroko sakoneratik ura ponpatzen da bi kontsumo-putzu txikitaraino. Zundaketa bat mendian dago eta ureztatzeko erabiliko da; bestea, berriz, eguzki-



Urbisun hainbat labore berreskuratuko dituzte. AKE

baratzearen inguruetan dago, eta herriko 65 herritarren etxeak urez hornitzeko erabiliko da.

Laboreak berreskuratu

Urbisuko elkartearen 60 jabe dira, eta guztira 250 hektarea inguru landatzen dituzte. Orain arte, inguruko beste partzela batzuetan landatzen zituzten laboreak, ura merkeagoa baitzen horietan. Parke fotovoltaikoa martxan jartzearekin batera, berriz, aspaldiko partez, erremolatxa landatzea erabaki dute.

Gainera, Urbisuko Ureztatzailer elkarteko presidenteak azaldu duenez, instalazioaren bitartez desagertzeko zorian zegoen nekazaritza estentsiboari eutsi ahal izango diote: "Lurrak ureztatzeak ekartzen zuen prezioaren ondorioz, gero eta gutxiago ziren okupatutako lurrak; orain horietako asko berreskuratuko eta landatuko ditugu". Hala, erremolatxa, patata, kimuak, piperra edo boi-lurra landatzen jarraitu ahalko dute Urbisuko nekazariak etorkizunean.

Energia berriztagarrietan egiten diren inbertsioak finantzatzeko Arabako Foru Aldundiak eta Energiaren Euskal Erakundeak sustatzen dituzten programen bitartez aurrera atera dituzte obrak. 190.000 bat euroko inbertsioa egin dute parke fotovoltaikoa eraikitzeko. Aurrekontuaren %80 Diputazioak finantzatu du, eta gainerako dirua elkartekideen kuoten bitartez ordaindu beharko dute; izan ere, zortzi urterako mailegua eskatu dute.

Iñigo Ansola EEEko zuzendari nagusiak pasa den astean Urbisun egindako bisitan azpimarratu duenez, "autokontsumoa funtsezko tresna bat da energia-eredu jasangarriago bat lortzeko bidean, eta klima-aldaketa aurre egiteko moduetako bat ere bada".

Gainera, Urbisuko azpiegituran aurreikusitako emaitza onak ikusirik, Arabako zenbait ureztatzailer elkartek proiektuarekiko interesa erakutsi dute, eta dagoe-neko harremanetan jarri dira Arabako Diputazioarekin aukerak aztertzeko.

ESANAK



KOLDO URIARTE
ARKITEKTOA
Iturria: Aiaraldea

"Ohorea da Bilboko Arte Ederren museoa eraberritzea, hogei urte eta gero"



AMAIA BARREDO
GASTEIZKO MUGIKORTASUN ZINEGOTZIA
Iturria: Radio Vitoria

"Hurrengo hamar urteetan kotxearen erabilera %30 murriztu nahi dugu"



ARMANDO AULESTIARTE
ARABAKO PENTSIONISTAK LANEAN
Iturria: Hala Bedi

"Herriko sektore guztiak gonbidatu nahi ditugu azaroko mobilizaziora"

ZENBAKITAN

Hildakoak

Udako bigarren lan heriotza jazo da aste honetan Tubacexen. Hain zuen, asteartean, langile bat hil zen Amurrioko enpresako Aeralava lantegian. Bero handia egiten zuen toki batean zegoen lanean M.G.R 59 urteko gizonezkoa bihotzekoa eman zionean. Antza, bero-kolpe baten ondorioz konortea galdu zuen. Anbulantzia eraman zuten Gurutzetako ospitalera behargina, baina ezin izan zuten suspertu. Euskal Herrian, aurren, gertatutako 33. lan heriotza da honakoa, eta Tubacexen udan jazotako bigarrena. Izan ere, iragan uztaillaren 4an Audioko gazte bat hil zen enpresaren Audioko fabrian.



Herriak

Araba Kantan egitasmoari esker, lurraldeko 25 herritara helduko da abesbatza musika, datorren azaroaren 23ra bitartean. Hurrengo asteburuetan, besteak beste, Bergantzu, Artxua, Fontecha, Armiñon, Gesaltza Añana, Espejo, Berantevilla, Manzanos eta Ribabellosan izango dira saioak. Eskaintza kulturala deszentralizatzea, lurralde osoan jarduera kulturala sustatzea eta tokiko eragileekin lankidetzatza bultzatzea ditu helburu egitasmoak.



Ustiategiak

Nekazaritza ustiategietan inbertsioak egiteko laguntzak ebatzi ditu Arabako Aldundiak, eta 181 ustiategi izango dira onuradunak; 2,6 milioi euro baino gehiago bideratuko ditu horretarako. Egingo diren inbertsioen artean, besteak beste, ustiategiak modernizatzeo eta mekanizatzeo neurriak abian jarriko dituzte, ureztaketa instalazioekin lotutako inbertsioak egingo dituzte edota uzta bilgiritzeko modua hobetzeko lanak izango dira.

'Agora' proiektua aukeratu dute Laudioko Antzokia eraikitzeko

Javier de las Heras arkitektoaren *Agora* proiektua aukeratu dute Laudioko Antzokia eraikitzeko. Egitasmoak 438 eserleku izango ditu, baina erdiguneko aulkiak kenduta, 700 plaza baino gehiago lor ditzake eraikinak. Guztira, hiru solairutan banatutako 1.793 metro koadro erabilgarri sortuko ditu eraikinak. 2021erako aurreikusi dituzte lanak.



Laudioko Antzokia eraiki eta hornitzeko bost milioi euro inguru beharko dira. AIARALDEA



Ander Iriarte aguraindarra. NAIZEN

Naizen taldeko Ander Iriartek botako du txupinazoa Agurainen

Urriaren 5ean Ander Iriarte Sarria gazteak botako du Aguraingo jaietako txupinazoa, Arabako, Bizkaiako eta Gipuzkoako adingabe transsexualen familiak biltzen dituen Naizen elkartearen izenean. Udaltzaz hartu du erabakia, gaztearen ausardia nabarmentzeko, eta bere aukera babestu duten aguraindar guztiak ere omentzeko asmoz.

Autorik gabeko eguna ospatzeko, doakoa izango da foru garraioa

Araba Erdialdeko, Arabako Errioxako eta Aiarako lineak -1 eta 16 artekoak-, Gasteiz, Miranda Ebro eta Durango lotzen dituztenak -18 eta 19 lineak-, eta eskualdeko garraioko linea guztiak doakoak izango dira igande honetan. Autorik gabeko eguna ospatu eta garraio publikoaren erabilera sustatu nahi dute neurri honekin, Aldunditik azaldu dutenez.

Arabako Medikuen Elkargoak jaso du Urrezko Domina

Urrezko Dominarekin elkargoaren mendebeteko ibilbidea aitortu du Arabako Aldundiak. "Medikuen profesionaltasuna eta deontologia bermatzeko Araban egin duen lan goresgarri eta emankorra aitortu nahi dugu sariarekin", esan du Ramiro Gonzalez ahaldu nagusiak. 1898an sortu zen elkargoa, hogeikiiderek, eta 2.000 mediku dira elkargokide egun.

Confecciones Pinedo, S.L.

Euskal Jantziak

San Antonio, 11
Heraclio Fournier, 15
GASTEIZ



www.confecconespinedo.com

Zinema, bakardadea arintzeko

Ostegunetan Zinemara programa martxan jarriko du Gaubeako Udalak urritik martxorarte, haraneko adinekoek aukera izan dezatela neguko hilabeteetan ere elkarrekin egoteko eta entretenitzeko.

ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

Adineko bizilagunak etxetik ateratzeko eta bakarrik sentitu ez daitezen, zinema programa zabala martxan jarri du Gaubeako Udalak. Ostegunetan Zinemara bataiatu dute ekimena, eta urritik martxorarte udaletxeko zinema-areto berrira eraman nahi dituzte Gaubeako beteteranoak, arratsalde, bi emanalditan. Gainera, filmaren inguruan solasteko aukera izango dute ikus-entzuleek, kafetxo baten bueltan.

Juan Carlos Garcia Escudero herriko alkateak nabarmendu duenez, asmoa da pelikulak ikusteaz gainera bailarako adineko jendeak aukera izatea elkarrekin egoteko eta hitz egiteko: "Are gehiago negu gorrian, hotza hasten denean eta goiz iluntzen duenean, oso aukera gutxi izaten baitute elkartzeko".

Izan ere, Gaubean gehienbat adineko jendea bizi da – herenak baino gehiagok 65 urte edo gehiago dituzte –, eta 26 herri txiki daude udalerrian, oso sakabanatuta. Escudero azaldu duenez, batik bat pelikula klasikoak proiektatuko dituzte Ostegunetan Zinemara programan, adinekoen gustukoak hain zuzen. "Badakigu udaberriak eta udak pena guztiak eramaten dituztela, baina neguan bakardadeak min handia egiten du, eta gure zaharrek urteko



Zinema-areto berrira eraman nahi ditu Udalak Gaubeako zaharrak, negu gorrian bakarrik ez egoteko

hilabeterik tristerik eta hotzenetan ere pozik egotea nahi dugu", esan du.

Zinema-areto berria

Proiektzioak Gaubeako udaletxeko batzar aretoan egokitu duten zinema-areto berrian egingo dituzte. Batzar aretoa zinema-aretoa bezala erabili ahal izateko inbertsioa onartu zuen Udalak apirilean. Modu horretan, 35.000 eurotik gora euro inbertitu dituzte hamabi metro koadroko

pantaila, proiektorea eta soinu-ekipoa erosteko, eta berrogeita bost eserleku jarri dituzte aretoan.

Hurrengo larunbatean, irailaren 28an, inauguratuko dute areto berria, *La reina de África* filmaren proiektzioarekin.

Laguntza gehiago

Zinema proiektzioak ez dira, ordea, herriko adinekoak babesteko eta laguntzeko abian jarri duten modu bakarra. Izan ere, aurtun bakartasunean



PHOT.OK

laguntzeko zerbitzu berezia ere martxan jarri dute Udalak eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagunduta, eta Gaubeako Enpresarien Elkartek kudeatzen duena. "Ez dugu nahi adineko jendea etxean bakartuta egotea, horregatik sortu dugu bakartasunean laguntzeko zerbitzu bat, zinemaren proiektzioen denbora tarte berean, alegia, urriaren hasieratik martxoaren amaiera arte".

"GURE HERRIETAKO ADINEKOEK BILTZEKO AUKERA IZAN DEZATEN NAHI DUGU"

JUAN CARLOS GARCIA (ALKATEA)

Udalerriko adineko pertsonak laguntzeko eta babesteko zerbitzu horri esker, pertsona bat kontratatuko dute 65 urtetik gorako bizilagunak artatuko dituen eta haientzat zuzendutako jarduerak antolatuko dituen. Hurrengo asteetan gutuna bidaliko diete haraneko erabiltzaileei -300 bizilagunek dituzte 65 urtetik gora eta horietatik 150 inguru 80 urtetik gora-, eta horretan ohartaraziko diete izena eman dezaketela laguntza zerbitzuan.

Hala, zerbitzuaren arduraduna, astero edo hamabostean behin, haiekin harremanetan jarriko da ondo dauden ziurtatzeko eta edozer gauza behar baldin badute jakiteko. Halaber, batik bat neguari begira, hainbat jarduera martxan jartzeko asmoa dute, Gaubeako herri txiki gehienetan soilik hiru edo lau biztanle geratzen baitira eta entretenitzeko aukerak murrizten dira adineko jendearentzat. "Baratzeko lana amaitzen denean eta egunak motzagoak direnean ez dute alternatibarik", esan du alkatea. ■■■

Zinema-saioak

Ostegunero, 17:00etan eta 19:30ean, film hauek proiektatuko dituzte.

Urrian

- *Memorias de Africa.*
- *Casablanca.*
- *Chicago.*
- *Everest.*
- *Con faldas y a lo loco.*

Azaroan

- *Deep Impact.*
- *Tora! Tora! Tora!.*
- *Dos hombres y un destino.*
- *Ronin.*

Abenduan

- *United 93.*
- *Lady Halcon.*
- *El bueno, el feo y el malo.*

Urtarrilean

- *Las brujas de Zugarramurdi.*
- *Gladiator.*
- *Campeones.*
- *Foot Loose.*

Otsailean

- *El padrino.*
- *Horizontes de grandeza.*
- *Arde Mississippi.*
- *El niño del pijama de rayas.*

Martxoan

- *La vida es bella.*
- *El pianista.*

Hizkuntza gutxituen txanda

Irailaren 25era arte eman daiteke izena Oihanederrek antolatutako 'Hitz Adina Mintzo' hizkuntza gutxituak ezagutzeko zikloan; urritik apirilera bitartean, sei hizkuntza aurkeztuko dituzte.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Ikasturte berriarekin batera hasiko da *Hitz Adina Mintzo* zikloaren bosgarren edizioa. Aurten, sei hizkuntza gutxitu gertuagotik ezagutzeko aukera eskainiko du proiektuak; zehazki, judu-espaniera, erromintxela, sorabiera, kriola, lakota eta nasa yuwea.

Oraingoan ere UEUren eskaintzaren barruan sartuta dago zikloa, eta ohikoa den moduan, izena eman beharko da parte hartu ahal izateko. Ziklo osoak 25 euro balio du; saio bakoitzak, berriz, bost.

Irailaren 25era arte egongo da epea zabalik.

Egun horretan izango da ikasturteari hasiera emango dion inaugurazio hitzaldia, EHUKo Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak saileko ohorezko laguntzaile Itziar Idiazabalekin; hizkuntza kooperazioaren inguruan jardungo du Oihaneder Euskararen Etxean, 19:00etan.

Zikloa, baina, urrian hasiko da. Urriaren 16an, judu-espainiera hizkuntza erromanikoa aurkeztuko du HUHEZIKo irakasle-ikertzaile Amelia Barquinek. Azaroaren

20an, Oscar Bizarragak, Kale Dor Kayiko elkarteko lehendakariordeak, erromintxelaz hitz egingo du, Euskal Herrian jatorria daukan hizkuntza ahaztua.

Apirilera bitartean, lau saio

2020ko urtarrilaren 15ean, Ivan Igartuak, EHUKo irakasle eta hizkuntza eslabiarretan adituak, Alemania ekialdeko sorabierara gerturatuko ditu entzuleak; otsailaren 19an, berriz, Wednesday Silvak, Ginea Bissaun jaiotako oñatiarrak, portugeseetik eratorritako kriola izango du hizpide. Martxoaren 20an, Espainiako Kongresuan EAJko bozeramaile Aitor Estebanek Ipar Amerikako bosgarren hizkuntza erabili den lakotaren berri emango du; eta amaitzeko, apirilaren 10ean, Ane Ortegak eta Arkaitz Zarragak, Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco Katedrako kideek, Kolonbiako nasa yuweaz jardungo dute.

Oihaneder Euskararen Etxeak 2015ean sortu zuen *Hitz Adina Mintzo* zikloa; munduko errealitate soziolinguistikoaren perspektiba zabaltzea eta aberastea eta hizkuntza aniztasuna baloreen jartzea eta ezagutaraztea du helburu. Saio guztiak 19:00etan dira, Oihanederren bertan; bakoitzean marko teorikoa eskaintzeaz gain hizkuntzaren oinarriko kontzeptuak ikasteko tailerrak egiten dira. ■



Amelia Barquinek judu-espainiera hizkuntza aurkeztuko du. ALEA



Izan
zaitez
ALEAkide



alea.eus/harpidetzak

Mahastien itsasoa, Eltziegon

'Mahastien artean' ibilbidea hamabi kilometroko txango lasaia egiteko proposamena da; hiru kilometroko paseo zirkular bat eta begiratoki ederrak biltzen ditu, besteak beste.

ARGAZKIAK: PHOT.OK

TESTUA: ESTITXU UGARTE L.Z. DE ARKAUTE

Eltziegotik abiatzen da Arabako Errioxako mahastien artean paseo lasai bat egiteko aukera ematen duen ibilbide zirkularra. Txangoa erraza da, oinez edo bizikletaz egiteko modukoa, eta ibilbidea luzatu nahi izanez gero, lotura anitz daude, tartean Ebroko Bide Naturala –GR99–.

Mahastien ibilbideak hiru gune lotzen ditu: San Roque ermita, San Vicente ermita eta Valdefrailes gaztelu zaharra. Iñaki Aspiazua arkitektoak diseinatu zituen bidea eta begiratokiak. Herrian bertan dago lehen begiratokia; upategien auzotik San Roque ermitara igo behar da, eta bertan ikus daitezke Toloño mendilerroaren bista ederrak. Bertatik jaitsi eta herria inguratzen duen Jean Pineau kalea zeharkatu behar da, ondoren, Marques de Riscal upategiaren atzealderaino.

Seinaleztatuta dago *Mahastien ibilbidea*, beraz ez dago galtzeko arriskurik; gainera, argibide-tauletan jasotzen da informazio interesgarria; esate baterako, Arabako Errioxako ardo modernoaren aita nagusia izan zela Pineau. Mahasgintzan zein ardogintzan aurrerapen garrantzitsuak egin zituen, tartean ardoa kontserbatzeko haritzeg egindako 225 litroko

upelaren beharra zabaldu zuen, edo ardoa merkaturatzeko markaren erabilera eta botiletan aurkezteko ohitura, besteak beste. Mahastien barietateei buruzko argibideak ere jasotzen dira, eta eskualdeko bestelako florari buruzkoak: pinudiak, aranak, arteak, ipuruak....

San Vicente ermitaren inguruan dagoen Xabier Arizaga Parke Botanikora jotzen du bideak Gheryren eraikina atzean utzita, eta gainalde horretan ikuspeirik

HIRU GUNE LOTZEN DITU BIDEAK: SAN ROQUE, SAN VICENTE ETA VALDEFRAILES

ederrenetakoak daude. Gero, Ebro ibaiaren ondotik herrira itzul daiteke edo txangoa luzatu. Hala, denbora eta gogoa izanez gero, aukera dago Valdefrailesko talaiaara hurbiltzeko. Toki estrategikoa da hau, Ceniceru, Eltziego eta Guardia ikusten baitira bertatik. eta baita Camerosko eta Demandako mendilerroak ere. Bertan, gaztelu zahar baten hondarrak aurkitu zituzten: oinplano trapezoidala duen arma-patioa, bi gela eta pasagune bat zuloarekin. ■





Mahastien artean ibilbidea

Kuadrilla: Arabako Errioxa.

Udalerria: Eltziego.

Luzera: 12 kilometro guztira.

Bitxikeriak: II. Karlistadan San Vicente ermita zaintza-postu bezala erabili zuten.

Lokogaileta jolasa

EGILEA: BARRUTIA IKASTOLA - 5. MAILA

Nola jolastu

1. Lurrean gailetak jarri behar dira. Talde bakoitzeko ilara bat egin behar da eta bertan gailetak jarri, tartea gordez.

2. Lokotx-biltzean egiten dugun bezala jokatuko dugu oraingoan ere, baina kasu honetan lokotxak edo oskolak bildu beharrean, gailetak jan behar dituzte parte-hartzaileek.

3. Gaileta, beti, jarrita dagoen tokian bertan jan behar da.

4. Jokalaria ezin da mugitu gaileta osoa jan edo irentsi gabe eta epaileak ikusi arte.

5. Gaileta jan ondoren, ilaran dagoen hurrengoari bostekoa eman behar zaio eta ondoren ilarara itzuli txanda hartzera.



ZOZKETAK

PARTE HARTU www.alea.eus/zozetak

Irabazleak:

Parralen bazkaria: Gorka Guerra (Gasteiz).

ALEA lau produktu sorta: Bergoi Madernaz del Pozo, Itziar Amestoy, Maria Diaz de Lezana Merino eta Eñaut Iraeta.



Anari + Thalia Zedek kontzertuan Bi lagunentzat

Anari eta Thalia Zedek bakarlariek kontzertua eskainiko dute Gasteizko Jimmy Jazz aretoan urriaren 3an (osteguna), 21:00etan. ALEAk bi sarrera solte zozkatuko ditu. Parte hartu nahi dutenek irailaren 25a baino lehen eman behar dute izena; hilaren 27ko ALEAn jakinaraziko ditugu irabazleen izenak.



Hala Bedin afaria Bi lagunentzat

Gasteizko alde zaharreko Hala Bedi tabernan bi lagunentzat afaria zozkatuko du ALEAk, ostiral edo larunbat batean afaltzeko. Zozketan parte-hartzeko, eman izena urriaren 1a baino lehen; urriaren 3ko ALEAn publikatuko dugu irabazlearen izena.



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).

alea.eus/harpidetzak/



AGENDA

Irailaren 20tik 26ra

Euskararen agenda

MUSIKA

GASTEIZ Izaki Gardenak

Zaramagako jaietan. Guda Dantza eta Paradixo taldeekin batera.

Larunbata 21, 22:00etan, Zuberoka plazan.

DULANTZI Akerbeltz

Herriko jaien barruan.

Larunbata 21, 23:30ean, herriko plazan.

GASTEIZ Sara Zozaya

'Igandeak 2019' zikloaren barruan.
Igandea 22, 20:00etan, Artiumen.

GASTEIZ Aiama eta Aneguria

Ene Bada biraren barruan.

Osteguna 26, 19:30ean, Falerinan.

BERTSOLARITZA

LAUDIO Bertso saio musikatua

Oihana Bartra, Uxue Alberdi eta Unai Mendibilekin.

Ostirala 20, 20:00etan, Faktorian.

GASTEIZ Lagun artekoa

Aroa Arrizubieta, Manu Bendala, Rikardo Gonzalez de Durana eta Serapio Lopezekin.

Larunbata 21, 14:30ean, Errexalan.

DANTZA

ANTOÑANA Dantza plaza

Dantza plaza saioa, Jare dantza taldeko kideekin. Herriko jaien barruan.

Ostirala 20, 20:30ean, plazan.



ALBERDANIA

GASTEIZ 'Babel'

Patxi Zubizarretaren azken nobela oinarri hartuta –'Julien Vinsonen hegaldia'–, errezitaldi musikatua eskainiko dute idazleak berak, Maddi Oihenartek eta Pello Ramirezek.

"Euskara irakasle eta ikasleak omentzeko modu bat ere izango da".

Osteguna 26, 19:30ean, Ignacio Aldekoa kultur etxean.

HITZALDIAK

ARAMAIO 'Begiz jotako koplak' liburuaren aurkezpena

Manex Agirrek eta Alex Mendikutek aurkeztuko dute, Sastiñako jaialdiaren barruan.

Ostirala 20, 19:30ean, Sastiñan.

GASTEIZ 'Hizkuntza gutxituak: iraun ala bizi'

Mahai-ingurua. Jasone Mendizabal (Topagunea), Edurne Brouard (AEK) eta Miren Azkarate (EHU) izango dira hizlari. Iñaki Martínez de Lunak gidatuko du.

Asteartea 24, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

GASTEIZ 'Hitz adina mintzo: aurkezpen hitzaldia'

Itziar Idiazabal EHUKo Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak saileko ohorezko laguntzaileak eskainiko du hitzaldia.

'Hizkuntza kooperazioa, zer da eta zer egin daiteke?'.

Asteazkena 25, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

Jimmy jazz gasteiz **IRAILA**

Ot. 19	ACHTUNG BABIES - U2 TRIBUTOA
Lr. 21	SAUROM "UN VIAJE ÚNICO"
	URRIA
Ot. 3	ANARI & THALIA ZEDEK
Os. 4	ESKORZO
Lr. 5	BOB FLOYD 'A PINK FLOYD LIVE EXP.'

WWW.JIMMYJAZZGASTEIZ.COM

IGANDEAK JAI

familia giroan euskaraz



“Dj Kaktus”

&

Tailerra

3-10 urte bitarteko haurrentzat gomendatuta

Eguna: Irailak 29

Lekua: Karmelitak Ikastetxea · Foru Kalea,49

Ordua: 17:30etik 19:30era

familian euskararen transmisioa lantzen!

Antolatzailea

Laguntzaileak

Babesleak





JABETZE FEMINISTARAKO ESKOLA

ESCUELA PARA EL EMPODERAMIENTO FEMINISTA

2019 / 2020

**VITORIA
GASTEIZ**
green capital

EKINTZAK EUSKARAZ

HITZALDIAK

- Maryren madarikazioa: amatasuna eta sorkuntza
- 'Nik sinesten dizut': lerro arteko patriarkatua irakurtzen

ANTZERKIA ETA DOKUMENTALAK

- Erradikalak ginen
- Bakean dagoena bakean utzi

IKASTAROAK ETA LANTEGIAK:

- Autodefentsa feminista. (Talde egonkorra, euskaraz)
- Kulturartekotasuna, hezkuntza eta generoa: hausnarketak eta erronkak
- Jendaurrean hitz egiteko teknikak (euskaraz)
- Jaiak, genero-harremanak eta feminismoa
- Autodefentsa feminista. (Hastapena, euskaraz)
- Feminismoa eta euskal dantzak uztartzen

#FEMINISMOANITZEL

Haurrentzako eta gazteentzako jarduerak

- #Feminismoanltzel irakurle-kluba
- Autodefentsa feminista (13 eta 15 urte bitarteko neskentzat. Euskaraz)
- 3, 2, 1... JUGGER! Ohiko kirolen alternatiba feminista
- Lur. Antzerkia

EMAN IZENA

info+: vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala